

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Mungiako Udala****Euskera ikasteko diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza, oinarri arautzaileak, behin betiko onartzea.**

Mungiako Udalbatzak 2019ko apirilaren 29an egindako Ohiko Osoko Bilkuran «Euskera ikasteko diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza» hasikera batean onartzea erabagi eban.

Ordenantzea iragarkia udaletxeko iragarki oholean egon da jendaurrean jarrita 2019ko maiatzaren 3tik bagilaren 17ra bitartean; web orrian; eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2019ko maiatzaren 3an argitaratu zan.

Horretarako ezarritako epean ez da ez erreklamazino ez iradokizunik aurkeztu; beraz, hasikerako onarpenean jasota dagoanari jarraituta, behin betiko onartutzat jotzen da eta Alkatetari jagoko hori argitaratzeko eta burutzeko agindua emotea.

Aklatea, 2019ko bagilaren 19an emondako dekretuaren bidez, behin betiko onartutzat emon dau «Euskera ikasteko diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza»; beraz, horren testu osoa argitaratu behar da.

Mungian, 2019ko bagilaren 19an.—Alkatea, Ager Izagirre

**EUSKERA IKASTEKO ERABILTZEAGATIK LOTUTAKO DIRULAGUNTZEN
OINARRI ARAUTZAILEAK****1. artikulua. — Xedea**

Oinarri hauen xedea ondokoa da: ikasturtean euskara-ikasketak eta -ikastaroak egi-teagatik diru-laguntzak emateko prozedura arautzea.

2. artikulua. — Aplikagarria den araudia

Diru-laguntza hauek norgehiagoka erara emango dira eta bete egin beharko dute Diru-laguntzen Ordenantza arautzailean ezarritakoa.

Diru-laguntza hauek ematea eta diru-laguntza eskatzen duenaren eta ematen duen erakundearen arteko harreman juridikoa oinarrioi eta emateko unean indarrean dagoen gainerako araudiari jarraituta zehaztuko da.

Oinarriotan eta lehen aipatutako Udal araudian jasota ez dagoen guztirako, Diru-laguntzen 38/2003 Legea eta horren garapenerako 887/2006 Errege Dekretuak onar-tzen duen araudia erabiliko dira.

3. artikulua. — Euskera ikastea

Hemen arautuko diren diru-laguntzen helburua Mungiar guztiek euskera ikasteko du-ten aukera bermatzea da; izan ere, interes berezikoat jotzen da Mungiako bizilagun helduek euskera ikastea.

Ondokoak izango dira diru-laguntza honen hartzaileak:

1. Aurre-matrikula egin aurretik, gutxienez urtebete lehenago Mungian erroldatuta daudenak.

2. Udal euskaltegian matrikulatzeko ezarritako epearen barruan izena eman arren, plazarik izan ez eta, Mungiatik kanpoko euskaltegi batera ikasten joan behar izan dute-nak; horientzako diru-laguntza ikastaroaren zenbatekoaren %30 izango da.

Laguntza hauek jasotzeko bete beharreko baldintzak:

— Udal euskaltegian ez egotea eskatzaileari dagokion mailako talderik (Ordutegia ez da kontuan izango).

— Udal euskaltegiko irakasleek erabakiko dute zein maila dagokion eskatzaile ba-koitzari.

— Mungiako edo bertotik kanpoko beste euskaltegi batean matrikulatzea astean hiru egun edo gehiagoko ikastaroetan (gutxienez astean sei orduan) eta ikasturte oso-rako.

Diru-laguntza jaso ahal izateko, kanpoko Euskaltegiko egiaztagiri bat aurkeztu behar-da aldeztu aurretik, asistentzia eta klaseen aprobetxamendua egokia izan direla ziur-tatzen duena.

2. Mungiako Udal Euskaltegian ikastaroa hasten denetik harik eta amaitu arte, %90eko asistentzia betetzen duten ikasleek matrikularen prezioan %75eko laguntza ja-soko dute.

Horretarako baldintza hauek bete beharko dituzte:

— Laguntza eskariari lotutako ikastaroan errendimendu egokia bete izana. Euskalte-giaren txostena aurkeztuko da.

— Maila beragaitik aurretik laguntzarik hartu ez izana.

— Baldintzak bete dirala egiaztatzeko Mungiako Udalak behar dituen datu, informa-zio eta abar gutziak aurkeztea.

Eskaria epe barruan egitea.

3. Udal euskaltegian matrikulatzeko epe barruan izena eman arren, plazarik izan ez dutela-eta, Mungiako beste euskaltegi batera ikasten joan behar izan dutenek, udal euskaltegian matrikulatutakoei dagozkien laguntza berdina izango dituzte.

**4. artikulua. — Diru-laguntzaren jakinarazpena**

Ebazpenak idatziz jakinaraziko zaizkie eskatzaileei.

5. artikulua. — Diru-laguntzak ordaintzea

Diru-laguntzaren ordainketa ematea onartzen denetik aurrera, hilabete biko epearen barruan egingo da ordainketa.

6. artikulua. — Diru-laguntza itzultzea

Diru-laguntza itzultzeko eskatuko da ondoko kasuren bat gertatuz gero:

1. Finantziarioa gehiegizkoa denean; hain zuzen ere, beste erakunde publiko edo pribatu batzuetako diru-laguntzak ere jaso direlako.

Hori gertatzen bada, diru-laguntza hartu duenak itzuli egin beharko du Mungiako Udalak emandako dirua; hain zuzen ere, finantzatu den guztirakoari begira, Udalak emandako kopuruaren proportzioan.

2. Kopuru osoa edo zati bat itzuli behar den jakiteko, proportzionaltasun- eta justizia-printzipioei jarraituko zaie eta, beraz, kasu bakoitzak dituen zehaztasunak hartuko dira aintzat.

3. Dirua itzultzeko ebazpena diru hori ematea erabaki zuen organo berberak eman-go du.

4. Dirua itzultzeko espedienteak bat etorri beharko du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen IV. Tituluarekin. Interesdunari 10 laneguneko entzunaldi-epea eskainiko zaio.

5. Dirua itzultzeko betebeharrak egiaztatu ostean, organo eskudunak betebeharrak hori jasotzen duen ebazpena eman-go du. Ebazpena justifikatu egin beharko da eta azaldu egin beharko dira itzuli behar izateko arrazoia, kopurua eta itzultzeko borondatezko epea. Era berean, jakinarazi egingo da itzuli beharrekoa horretarako ezarritako epearen barruan ez bada itzultzen, premiamendu-bidera joko dela.

Dokumentazio osagarria.

1. *Lana*.

- a) Lan-bizitzaren egiaztagiria; bertan lan egin den azken enpresa agertu beharko da jasota.
- b) Eskatzailea langabezian badago, egoera horren egiaztagiria.
- c) Autonomoen kasuan, autonomoen erregimeneko alta indarrean.

Gain-finantziatorik ez dagoela egiaztatzeko, eskatzaileak hau aurkeztu beharko du:

- a) Euskaltegian euskera ikasteko laguntza pribaturik ez dela jasotzen egiaztatzen duen enpresa-agiria.
- b) Ez da behar justifikazio osagarririk.
- c) Euskaltegian euskera ikasteko laguntza pribaturik ez dela jasotzen egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena.

Kasu guztietan, euskera ikasteko HABE edota Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzarik («Euskara Eskura Txartela» edo antzekoren bat) ez dela jasotzen egiaztatzen duen agiria.

Beste erakunde publiko edota pribaturen batetik diru-laguntzak jasota ere, Mungiako Udalari euskera ikasteko diru-laguntza eskatuz gero, maila pribatuan emandako diru-laguntzen egiaztagiria. Egiaztagiri bakoitza ematen duen Administrazio edo enpresa bakoitzak egin beharko du; eta ondokoa jaso beharko da bertan:

- Kontzeptua.
- Zenbatekoa.
- Zein ikastaro eta ikasturterako eman den.

**7. artikulua. — *Proposamenak aurkezteko modua eta epea***

Diru-laguntza eskariak Mungiako Udaletxeko HAZ/SACeko Sarrerren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legearen 16.4 artikuluari jarraituta.

- Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen den moduan.
- Espainiako estatuak atzerrian dituen ordezkariak diplomatikoetan edo kontsultatuetako bulegoetan.
- Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.

Eskaerak aurkezteko epea: uztailako lehen hiru asteak.

8. artikulua. — *Diru-laguntzak emateko prozedura*

Eskariak aurreko artikuluan zehaztutakoaren arabera aurkeztu beharko dira.

Udal Euskaltegiak egin diren eskariak aztertu eta diru-laguntzok ematea edo ez ematea ebaztuko du, gehienez ere hiru hilabeteko epearen barruan; dena den, beste era bateko tramitazioak egin behar izatea ere gerta liteke; hau da, akatsen zuzenketak, errekerimenduak edo prozeduraren barruan egokiak diren beste batzuk.

9. artikulua. — *Epaimahai Kalifikatzailea osatuko duten kideak*

- Euskaltegiko zuzendaria.
- Ikasketa burua.
- Udal Euskaltegiaren idazkariaren funtzio administratiboak betetzen dituen pertsona.

10. artikulua. — *Aurrekontu-kreditua badagoela egiaztatzea*

Diru-laguntza emateko prozedurari aurrekontu-kontsignazio nahiko dagoenean baino ez zaio ekingo; horretarako, jasota utziko da espedientean kreditu atxikipenaren dokumentua.